



Bihartik hurrengo igandera arte Santio jaiak dira Villabonan

JAIK ▶ Adin guztietakoek izango dute zer egin eta zer ikusi jaietako zazpi egunetan

ERROSKILA ▶ Jaiak hasteko erroskila igoko dute bihar txupinazoarekin batera

PRESOAK ▶ Presoen aldeko hainbat ekitaldi ere prestatu dituzte egun hauetarako ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

Gipuzkoako segalarien finala, pil-pilean

Aranalde, Erasun eta Goikoetxea ariko dira bihar Urnietan ▶ 5

IBARRA ▶

Piperraren Lehiaketa antolatu dute jaietan

Abuztuaren 12a baino lehen eman behar da izena ▶ 6



AHTren aurkako akanpada «giro onean» hasi da

ALEGIA ▶ Atzo hasi zen Langaurreko zelaian AHTren aurkako X. akanpada. Prestaketa lan guztiak amaitu eta ekitaldiekin hasi ziren antolatzaileak. Kalejira tailerra, bazkaria, hitzaldia, asanblada eta trikitixa doinuak izan zituzten eta «giro onean» joan zen eguna, antolatzaileen esanetan. Gaur ere agenda beteta daukate.

Goizean umeen txanda izango da. Bazkalondoren bigarren asanblada egingo dute, mural pintaketa eta Alegiara jaitsiko dira kalejiran. Gauean hainbat musika talderen kontzertua izango da Bulebarrean. Argazkian, atzoko prestaketa lan batzuk Langaurreko zelaian. NOELIA LATABURU ▶ 5



UDA HONETAN JANTZI EZAZU
HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta

OSKI GAZTEA

Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21
TOLOSA

IGERIKETA ▶

Bi hilabete historia egiteko

Irailaren 24an 24 orduz bizkarrez igerian aritzeko Guinness errekor saiakera egingo du Carlos Peñak; prestaketetan murgilduta dago Erronka taldea



Peña, Ezeizabarrena, Mokoroa eta Rabadan, Erronka taldea, ekimenarako elastikoekin. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

Bi hilabete. Horixe faltako da bihar egun handirako. Tolosa Guinness errekorren liburuan sartzeko. Irailaren 24an 24 orduz bizkarrez igerian aritzeko saiakera egingo du Carlos Peña igerilari tolosarrak. Herritarrez inguraturata. Eta balentria hori errekor bihurtzen saiatuko dira guztiak.

Bi hilabete geratzen dira. Baina Peña «nahiko lasai» dago. Bere prestaketa egiteaz gain, Erronka taldearekin ari da egun hori antolatzen. Kike Mokoroak, Gorka Ezeizabarrena, Koldo Rabadanek eta Carlos Peñak berak osatzen dute Erronka taldea, eta buru-belarri ari dira lanean xehetasun guztiak lotzeko.

Astean bitan elkartzten dira. Bakoitza arlo batetaz arduratzen da, gehien ezagutzen duena; baina banaketa hori «lana errazteko» da gehienbat, «denon artean gauzak adosteari» ematen baitiote garrantzia. Babesa bilatzea izan zen lehendabiziko egin beharrekoa. Hala, Tolosa 750. Urteurrena Fundazioarekin harremanetan jarri ziren, eta ordutik elkarlanean ari dira.

Bi taldeen arteko lankidetzaren harremanak «primerakoa» dela azpimarratu dute Erronka taldekoek: «Lehendabiziko egunetik bere babes osoa eskaini digu fundazioak, eta hari esker lortu ditugu hainbat eta hainbat gauza. Hasieratik erraztasunak eman dizkigute, eta asko eskertzen dugu haien jarrerara».

Elkarlan horri esker zehaztu zituzten eguna, ordua, eta erronkaren nondik norakoak. Orain, izen-emateei bultzada ematen eta jarraipena egiten ari dira, horrela kalean antolaketa egin ahal izateko.

ek: «Tolosar guztion parte-hartzearekin baldin bada, askoz hobeto».

Carlos Peñarekin batera «beti norbait igerian aritzea» lortu nahi dute. Igerilariak jendearen babesa asko eskertuko duela dio: «Niretzat oso pozgarria izango da aldamenean igerian norbait egotea. Giro ona ikusten badut, oso aberasgarria izango da, indarra emango dit. Motibazio hori landu behar dugu».

Parte hartzeko ez dago adin mugarik. Egin beharreko metroak ere norberak aukeratzeko dugu, 25 metrotik hasi eta 1.000 metroetaraino. «Erraza izango da denontzat, ez du prestakuntza handirik behar», diote Erronkakoek, herritarrek eta era guztietako talde zein elkarrekin animatuz.

Prestaketa handirik behar ez den arren, batzuek «serio» hartu dutela dio Peñak: «Jendearentzat ere erronka da. Ezagutzen dut horretarako zehazki entrenatzen ari denik. Umeek, 78 urteko gizonezko batek... horiek guztiak izena emateak hunkitu nau».

Igerilariari lan handiagoa emango diote entrenamenduek. Prestaketa ondo doala dio; alde batetik muskulazioa lantzen ari da, eta bestetik igerian ari da, bai Tolosako igerilekuan, bai Elbro ibaian, Lodosan (Nafarroa). «Pixkanaka-pixkanaka muskulazioa saioak jaisten eta igeriketakoak igotzen joango naiz. Beti ere Iñaki Arratibel medikuak esaten didanaren arabera. Oraingoz, zorronez, nahiko lasai nago. Pazientzia handiarekin hartu beharreko desafioa da. Fisikoki gogorra izango da, baina bururantzat ere gogorra. Hori lantzen saiatu behar dut».

Laster instalazioak ikustera joango da Peña: eguzkiak nola jotzen duen aztertu, argitasuna, kloroa, uraren tenperatura... «Txikikeriak irudiki zaizkizue, baina erabat garrantzitsuak dira», dio, tinko.

Hirukide ikastetxeak, Laskorain ikastolak, Jokin Bildarratz alkateak, Andoni Imaz Kirol zinegotziak eta Iñaki Arratibel kirol medikuak eta bere taldeak, besteak beste, parte hartuko dute. Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeak (IKT) ere asmoa agertu du izena emateko. «Izena eman ala ez Usabaleria joatera animatu nahi dugu jendea, festa giroan murgiltzeko».

Ekimena girotzeko, kamisetak atera berri dituzte. Hiru koloretan: urdina, laranja eta beltza, eta hiru neurritan: M, L eta XL. Laster salgai jarriko dituzte. Erronka iragartzen duten kartelak ere ikusgai daude atzotik herriko txokoetan.

ERRONKA ▶ GEHIAGO JAKITEKO

Zer. Carlos Peña igerilari tolosarrak 24 orduz bizkarrez igerian aritzeko Guinness saiakera egingo du. Herritarrek ere parte hartu ahal izango dute erronkan.

Noiz. Usabal kirol eta aisialdigunearen inaugurazioan: irailaren 24an 12:00etan hasi, eta irailaren 25ean 12:00etan amaitu.

Oinarriak.

▶ Zazpi kale erabili ahal izango dira: lehena, ikastetxeentzat; bigarrena, elkarreentzat; hirugarrena aleta igerilarientzat eta triatletentzat; eta gainontzeko hirurak pertsona ororentzat.

▶ Ikastetxe zein elkarreentzat orduka gordeko dira kaleak.

Beste kaleen orduak, berriz, igeri egin beharreko metroen arabera banatuko dira: 25-300 metro (10 minuturo), 325-600 metro (20 minuturo), eta 625-1.000 metro (ordu erdiro).

▶ Kale bakoitzeko igerilari bakar bat ariko da.

▶ Derrigorrezkoa izango da egun horretarako ateratako txanoa erabiltzea. Parte hartu baino lehen banatuko dituzte.

▶ Igeriketa estiloa librea izango da, baina ezin izango da tximeleta estiloan aritu. Aletak baimendurik egongo dira, baina ez monoaletak.

▶ Gubxieneko adina sei urtekoa izango da.

▶ Gubxieneko distantzia 25 metro izango da, eta gehienekoa 100 metro.

▶ Igerilari bakoitzak egindako

distantzia erregistro liburu batean txertatuko da.

▶ Izaera ez lehiakorra izango da.

Izen-ematea.

▶ Kultur Etxea: 9:30etik 13:30era, eta 17:00etatik 19:00etara. 943 67 03 83.

▶ Internet bidez: www.tolosa750.net webgunean.

▶ Eman beharreko datuak: izen-abizenak, adina, helbidea, posta kutxa, herria, igerian egin nahi den distantzia eta lehenastuneko ordua.

▶ Probaren eguna baino bihazpahiru aste lehenago itxiko dituzte zerrendak. Izena eman duten guztiak gutuna bidaliko diote igeriketa orduaren eta abarren berri emateko.

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.
Alegian. 08:00etatik 15:00etara ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Autoa beharrezkoa da. Deitu 669 05 19 28.
Emakumea. Zerbitzu enpresa batek 25-35 urteko emakumea behar du. Derrigorrezkoa gida karneta. 15:00etatik 17:00etara deitu 943 67 03 15 telefonora.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO
Zorion agurrak.
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK oporrak hartuko ditu abuztuaren. Hilabete horretan urteak betetzen duen inor zoriondu nahi izanez gero, egunotan duzu aukera argazkiak ekartzeko. Berehala argitaratuko ditugu!

Herritarren parte-hartzea

Kirol lorpenaz gain, oro har, bi helburu ditu saiakera honek: «Usabal kirol eta aisialdigune berriaren inaugurazioan izango da erronka. Kirolgunea herritar guztiona da, eta horregatik oso garrantzitsua iruditzen zaigu saiakera honetan ere hori islatzea. Hala, herritarren parte-hartzea gakoa izango da». Bestetik, «Tolosaren izena Guinness liburuan sartuz gero munduan zabalduko» dela gogoratu dute Erronka taldeko-

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean 112m². Bista zoragarriak.
Salgai (Tolosa). Pisua Belate Ibilokian, Bista zoragarriak.
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibilokian
Alokatzeko (Ibarra). Garajea Euskal Herria kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosaldean). Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidean, B. Zaldibia kalean eta Nafarroa Etorbidean.
Alokatzeko (Salou). 4 edo 6 lagunentzako
943 65 17 13 / 677 46 09 16

POLITIKA ▶



Gomezzen heriotza salatzen

Iratxe Etxebeste ▶ Eskualdeko ezker abertzaleko hainbat kidek egin zuten bat herenegun arratsaldean Askatasuna erakundeak Imanol Gomez usteko etakide donostiarraren heriotza salatzen deitutako kontzentrazioan. *Gerra estrategia eten!* Euskal Herria aitortu zioen pankartaren atzean bildu ziren San Frantzisko elizaren atarian, asteazkenean, Frantziar, polizia ihes egiterakoan auto istripuz hil zen Imanol Gomezzen heriotza deitoratzeko. Xingoladun ikurrinak eskuan, Euskal Herriari aitortza ematea exijitu zieten Frantziako eta Espainiako gobernuei. Datoren egunetako mobilizazioetarako deia egin zuten. LEIRE MONTES

GIZARTEA ▶

Harizpek irteera antolatu du irailerako

Espainia eta Portugal aldean izango dira bertan izena ematen dutenak astebetez

I. ETXEBESTE

Tolosako Harizpe Jubilatuen eta Pentsiodunen elkarteak irteera antolatu du irailerako Espainia eta Portugal aldera. Irailaren 1ean irten, eta 7ra arte iraungo du bidaiari turistikokultural horrek, eta, besteak beste, Extremadurako eta Portugaleko Caceres, Fatima, Alcobaca eta Costa Caparica hiriak bisitatuko dituzte, besteak beste, izena ematen dutenek. Zabalik da jada izen-ematea elkarteak Emeterio Arrese kalean duen egoitzan. Bazkideek 445 euro eta gainerakoek 460 ordaindu beharko dute.

EHIZA ▶

Montezkueko I. Ehiza Zakur Txapelketa, giro ezin hobean

Urdanpilleta, Lopez eta Aldasoro izan ziren multzo bakoitzeko lehen irabazleak

J. GOIKOETXEA - I. ETXEBESTE

Giro ezin hobean izan zen joan den igandean Tolosako Ehiztari Elkarteak antolatu, eta Gipuzkoako Ehiza Federakuntzak eta Garmendia banaketak enpresak lagundutako I. Ehiza Zakur Txapelketa Herriarra eta Probintziala Montezkueko zelaian. 11 lehiakide izan ziren guztira hiru mailatan banatuta, eta epaileek horietako zazpi lagunen sailkapena egin zuten, gainerako laurak lehiatik kanpo utziz.

Antolatzaileen hitzetan, «txapelketa ez zen behar bezalako baldintzetan jokatu», besteak

beste, normalean abereak egoten direlako larre horretan eta gorotzez beteta zegoenez, zakurrei ohi baino gehiago kostatu zitzaielako haien lana egitea: «Zakurren usaimenarentzat oztopo handia izan ziren gorotzak txapelketa egiterakoan».

Tolosako Ehiztari Elkarteko kide Jose Mari Olariagaren esanetan, «joan-etorrian ibili zen jendea», eta, orotara, 100 bat izango ziren txapelketa ikustera joandakoak.

Zakurrek eta jabeek egin beharreko lanari buruz, Olariagak zioen «lehenik eta behin, zakurrek begiratu gabe galeperak zabaltzen» zituztela zelaian, eta zakurrek piezak bilatu ostean, nagusiari eman behar zizkiola. Zakurrak galeperak bilatzeko zenbat denbora behar zuen hartu zuten epaileek aintzat irabazleen sailkapena osatzerakoan, eta jabeen aginduari zakurrak zenbate-



Tolosako Ehiztari Elkartekoak, irabazleei saria ematerakoan. HITZA

raino jaramon egiten zion ere bai. «Nagusiak agindua eman baino lehen zakurrek galeperak harrapatuz gero, epaileek zigortu egiten zituzten», adierazi du Olariagak.

Irizpide horien arabera, Kontinental eta Britaniar mailetan lehen hiru izan zuten epai-

leek saria: txapela bana, garai-kurra eta diru saria. Eta elkartearen artean, lehendabizikoa baino ez zuen saria eskuratu: Jose Ramon Aldasorok, hain zuzen ere. Azken multzo horretan Tolosako Ehiztari Elkartekoek hartu zuten parte; antolatzaileek, alegia.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzioz klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

SAILKAPENA ▶

EHIZA ZAKUR TXAPELKETA
Kontinental maila.

1. Jose Luis Urdanpilleta
2. Candido Arroyo
3. Fernando Perez

Britaniar maila.

1. Luis Mari Lopez
2. Miguel Sevillano
3. Modesta Iraola

Elkartekoak.

1. Jose Ramon Aldasoro

TOLOSAN SUKALDARIA
jornada erdirako behar da.
Pintxoak eta plater konbinatuak prestatzeko.
Telf.: 649 254 412

Beti alai
jateko

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

VILLABONA ▶ SANTIOAK

EGITARRAUA ▶

BIHAR

09:00. Diana-kalejira Villabonako Santio Txistulari taldearekin.
11:00. Dantzari txikien kalejira auzoz-auzo.
11:00. Pilota partidak (pala eta eskuzko afizionatu mailako finalak) plazan Behar-Zana elkarteak antolatuta.
12:00. Kanpai errepika.
13:00. Hasierako txupinazoa Los Pasai txarangak alaituta. Erroskilaren igoera Onddo gazte asanbladaren eskutik.
14:00. Herri Bazkaria Los Pasai txarangak alaituta.
18:00. Dantzari txikien emanaldia Plazan.
20:00. Dantzaldia Nekin taldearekin plazan.
23:30. Dantzaldia Nekin taldearekin plazan.

ETZI

Santio Eguna.
09:00. Sokamuturra plazan Tolosako dultzaineroek alaituta.
10:30. Herri krosa Zunbeltz elkarteak antolatuta (alebinak eta benjaminak), Txerminen. Ondoren gainontzeko mailak.
12:00. Meza nagusia parrokian.

12:00. Kalejira Valtierako musika bandarekin.
13:00. Valtierako musika bandaren kontzertua Berdura plazan.
13:00. Udal korporazioak urteroko bisita Santiago Egoitzara, Santio Txistulari taldeak lagunduta.
17:00. Erraldoi eta buruhandien irteera Tolosako dultzaineroek alaituta.
18:00. Soka dantza plazan, herriko Oinkari dantza taldearen eskutik.
20:00. Dantzaldia Irailerako 6 taldearekin plazan.
22:30. Oroituz emanaldiaren aurkezpena herriko Oinkari dantza taldearen eskutik Olaederra kiroldegian.
24:00. Dantzaldia Irailerako 6 taldearekin Plazan.

UZTAILAK 26, ASTEARTEA
Santa Ana Eguna..

09:00. Diana-kalejira Tolosako dultzaineroekin.
10:30. Haur parke handia Txistularien plazan.
16:00. Mus txapelketa herrikoia Berdura plazan.
17:00. Haur parke handia

Txistularien plazan.
18:00. Joko garbi pilota partida plazan.
19:00. Sagardo eta txekor dastaketa Txerminen.
20:30. Dantzaldia plazan Escala orkestrarekin.
22:30. Villabonako Eresargi abesbatzaren emanaldia Gurea aretoan.
23:30. Dantzaldia plazan Escala orkestrarekin.

UZTAILAK 28, OSTEGUNA
Jubilatuaren Eguna.

10:30. Erraldoi eta buruhandien irteera Tolosako dultzaineroek alaituta.
11:00. Tailerrak eta Sum Magoarekin haur jaialdia Txistularien Plazan.
11:00. Eskulan erakusketa Berdura plazan.
12:00. Meza nagusia parrokian.
14:00. Bazkaria Txermingo Ikastolan.
16:00. Haur txirindularitza jaialdia plazan.
18:30. Pilota partidak Olaederra.
23:00. Rock kontzertuak Nun Bait, Coilbox eta Jauko Barik

taldeen eskutik Erreboteko plazan.

UZTAILAK 29, OSTIRALA
Koadriren Eguna.

11:00. Gorriti (Noe-ren Arka) haur jaialdia plazan.
14:30. Koadrila arteko bazkaria Etxe-Ondon. Ondoren kalejira Incansables txarangarekin plazaraino.
20:00. Dantzaldia plazan Etxabe Anaiak taldearekin.
23:30. Dantzaldia Plazan Etxabe Anaiak taldearekin.

UZTAILAK 30, LARUNBATA
Haurren Eguna.

09:00. Sokamuturra Plazan Tolosako dultzaineroek alaituta, heldu eta haurrentzako.
10:30. Erraldoi eta buruhandien irteera Tolosako dultzaineroek alaituta.
11:00. Ezinezkoen Feria haur jaialdia plazan.
12:00. Halterofilia erakustaldia: Olaederra-Danenaren eta Bizkaiko selekzioaren artean Berdura plazan.
17:00. Kiki, Koko eta Moko pailazoak Txistularien plazan.

17:00. Emakumeen parte-hartzea sustatzeko herri-jolasak.
19:00. Futbito txapelketaren finalak plazan.
22:30. Bertsolariak Arroan: Amaia Agirre, Nahikari Gabilondo, Estitxu Izagirre, Amets Arzalluz eta Sustrai Colina. Gai-jartzailea: Jon Zaldúa.
23:00. Dantzaldia plazan Triki Ta Ke taldearekin.

UZTAILAK 31, IGANDEA

09:00. Diana-kalejira Villabonako Santio Txistulari taldearekin.
11:30. Hazparne-Villabona errebote partida plazan.
14:30. Pilotariekin bazkaria Arantzabi jatebean.
18:00. Herri kirol erakustaldia plazan: harri-jasotzaileak, aizkolariak eta tronzalariak. Ondoren, idia, aberea eta Amasa-Villabonako gazte talde bat elkarren aurka arituko dira lehian.
20:30. Dantzaldia plazan Egan taldearekin.
23:00. Dantzaldia plazan Egan taldearekin.
24:00. Erroskilaren errausketa plazan.

Igandetik igandera, jai



Santio Egoitzako animazio taldeak egin du jaietako kartela. HITZA

Adin guztietakoak izango dute zer egin eta zer ikusi Santio festek irauten duten zazpi egunetan

ERREDAKZIOA

Bihar hasi eta datorren igandearte festa giroan murgilduko da Villabona. Santiotan edade guztiek izango dute aukera astea jai giroan igarotzeko. Haurrek, jubilatuek eta koadrilek, gainera, beren eguna izango dute.

Txupinazoarekin eta Erroskilaren igoerarekin hasiko dira ofizialki Santioak bihar eguerdian eta hurrengo igandean, hilaren azken egunean erreko dute Erroskila.

Ekitaldien artean, batzuk aipatzekotan, Santio egunean herriko Oinkari dantza taldeak *Oroituz* ikuskizunaren estreinaldia egingo du. Bideoa, musika eta dantza bilduko dituen emanaldia izango da. Kontzertuei dagokionez, Nun Bait eta Nekin herriko taldeen emanaldia entzun eta ikusteko aukera izango da. Ez dira faltako ere sokamuturra, Zunbeltzen herri krosa, soka dantza, joko garbi eta errebote partidak, sagardo eta txekor dastaketa, futbito txapelketaren finala...

Presoak gogoan

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak *Santio jaietan, euskal presoak Euskal Herrira* lelopean festen baitan egitaraua antolatuta du. Bihar, preso eta iheslarien aldeko eguna izango da eta 21:00etan herri afaria egingo dute Berdura plazan. Ondoren omenaldia preso eta iheslarien sendeiei. Etzi, Etxerat elkarteak deituta enkartelada ixila *Euskal presoak Euskal Herrira orain!* lelopean Gurea aretoan, 19:30ean. Hilaren 30ean, *Euskal presoak Euskal Herrira* aldarrikapena errepideetan, 12:00etatik 13:00etara. 11:45ean geldituko dira Villabonako plazan.

Bestalde, herrikuntza moduan, hilaren 25etik 31era bitarte, 20:00etatik 24:00etara, presoaren aldeko jantokia antolatuta dute Berdura plazan. ◀

Oporretan lasai ibiltzeko kontuan hartu beharrekoak

Zoazen tokira zoazela, zurekin izango gara, oporretan lasai-lasai ibili zaitezten. Abiatu aurretik, gomendio batzuk eman nahi dizkizugu.

▶ Ez ahaztu gakoa

Zauden tokian zaudela, Euskadiko Kutxaak zure finantza-behar guztiak erantzunango ditu, beti bezala.

Telebankan, telefono bidezko bankuan 901 333 444
 Euskadiko Kutxaren txartelen bidez
 Internet bidezko bankuan www.cajalaboral.com

Gogoan izan gakoa behar duzula zerbitzu horiek erabiltzeko. Gogoratu ez baduzu, zoz zure sukurtsalera, momentuan bertan emango dizute.

Euskadiko Kutxa oneraz gora daudazan nahi dugula, merretik izan eta.



KIROLA ▶



Goikoetxea iazko finalean aritu zen, argazkian ikusten den bezala.o.e.

Gipuzkoako segako finala pil-pilean

Urnietan ariko dira bihar eskualdeko Erasun, Aranalde eta Goikoetxea

NOELIA LATABURU

Bihar Urnietako Goiburu auzoan Gipuzkoako Segako Txapelketako finala lehiatuko da, 18:00etatik aurrera. Lau segalari ariko dira garaipenaren bila, Bixente Mitxelena eta eskualdeko Mikel Aranalde eta Andoni Goikoetxea gazteluarra eta Juan Manuel Erasun zizurdarra.

Azken hau da faborito, pasaden asteburuan Olasagastiren aurrean desafioko irabazi ostean. Dena den, Zizurkilgoak ez du garaipena horren gertu ikusten, izan ere, aste hau «oso nekatuta» dagoela aitortu du. Errekuperazio lanetan igaro ditu egun hauek. «Eratat des-

berdina da desafioko egin beharreko lana eta final honetan egingo dugun ordubeteko lana egin behar izatea», adierazi du Erasunek. Gainera, Mitxelena eta Aranalde forma egokian daudela dio eta «nik bezain beste aukera dituzte haiek ere». Haatik, segalaria bere indar guztiakin irtingo da belardira, «finalean garaitzea» baitu helburu.

Hasiera batean finala Larraitzen izatekoa bazen ere, bertako belardian belar eskasa zegoela eta, Gipuzkoako Federazioko sega batzordeak txapelketaren kokapena aldatzeko erabakia hartu du. Belarraren arazoa dela eta, Euskadikoa erabakitzeaz dago

ALEGIA ▶ AHT

Akanpadaren lehenengo eguna «giro onean» garatu da Langaurren

Gaur haur tailerra, mural pintaketak eta kontzertuak izango dira

N. LATABURU

Atzo hasi zen Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako X. akanpada Langaurreko zelaian, AHTren aurkako Asanbladak antolatuta. Goizean goiz ekin zieten ekitaldiei, kalejira tailerrarekin. Bazkariaren ostean, berriz, hitzaldia izan zen Accion directa-ko preso bat hizlari izan zelarik. Arratsaldean akanpadako lehen asanblada burutu zuten. Eta, ondoren, trikitixa doinuek alaitu zuten gau giroa. Antolatzaileen esanetan, «giro onean» ireki da kanpaldia, oraindik ere zer ikusi asko izango delarik.

Gaur ere agenda betete dute Langaurrea hurbiltzen direnek. Goizean umeen txanda izango da, haiei eskainitako tailerrarekin Tzialaren eskutik, bai eta erresistentzi tailerra Itoizko solidarioen eskutik.



Atzo amaitu zituzten akanpadako prestaketa lan guztiak. NOELIA LATABURU

Bazkariaren ostean, bigarren asanbladarako bilduko dira. Ondoren, mural pintaketa egingo dute eta 19:00etan Alegiara jeitsiko dira, kalejiran. Gauean

bulebarrean izango da hitzordua, izan ere, Basque country of faraons, Gaizkiñe eta Acido C taldeek kontzertuak eskainiko dituzte.

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA



Ludotekari agur esan diote izarpean

N. Lataburu ▶ Bidegoiango gazteek bi aste iraun dituen ludotekari amaiera bikaina eman zioten, herenegun gauean herriko parkean eginiko akanpadarekin. Arratsaldean dagoeneko kanping dendak prestatu zituzten eta pilotalekuan elkar-tu ziren gaua izarpean igarotzeko. Guztira 41 gaztetxo bildu ziren, sei begiraleekin batera, txikiak etxean geratu zirelarik. Jolasak eta afari legea egin ostean, atzo, gosaldur ostean, elkar agurtu zuten datorren urtera arte. NOELIA LATABURU

PARTAIDEAK:



ADUNA



ANOETA



ASTEASU



HERNIALDE



IRURA



VILLABONA



ZIZURKIL

IBARRA ▶ GASTRONOMIA

Piperraren Euskal Herriko I. Lehiaketa antolatu dute

Abuztuaren 21ean izango da eta hilaren 12a baino lehen eman beharko da izena

IÑIGO TERRADILLOS

Abuztuan Ibarren antolatzen den Piperraren Azokan VIII. urtea ospatuko du aurten. Azoka horren baitan herri mailako lehiaketa gastronomikoa antolatu ohi da, eta funtsezko elementua Ibarako Piperra deiturikoa izaten du, pintxoak eta piperrada prestatzen direlarik.

Aurtengo azokak berrikuntzarik izango du. Izan ere, Xepa elkartearen XXV. urteurrena dela eta, ekitaldi gastronomiko hau sustatzeko asmoz, Hauspoaren lankidetzaz eta Udalaren babesaz, aurten Ibarako Piperraren Euskal Herriko I. Lehiaketa Gastronomikoa antolatzea erabaki dute.

Abuztuaren 21ean egingo da lehiaketa Idoiaga auzoan, eta

lehiakide bakoitzak ondorengoak prestatu beharko ditu: Ibarako Piperraz egindako sei pintxo; denak berdinak (hotzak edo beroak) eta piperraz gain nahi diren osagaiak erantsi ahal izango dira, beti ere piparra osagai nagusia izanik. Eta piperrada, Ibarako Piperra nahitaez sartu beharko delarik. Bestalde, parte-hartzaileek pintxoak eta piperrada lehiaketa egingo den lekuan prestatu beharko dituzte, 9:30etatik aurrera eta bi platerak 13:00etan aurkeztu beharko zaizkio epaimahaiari.

Bai Ibarako Piperra, baita piper gorri eta berdeak eta tipula ere, antolakuntzak eman go dizkio lehiakide bakoitzari. Gainerako osagaiak, eta bakoitzak erabili nahi dituen sukald-

de-tresna guztiak, parte-hartzaileek eraman beharko dituzte.

22 parte-hartzailetara mugatu dute lehiaketa, eta nazio izarera dela eta, antolakuntzak zuzenean 7 parte-hartzaile gonbidatuko ditu (bat herrialde bakoitzeko). Halaber, parte-hartzaile kopurua zehazturikoa baina handiagoa bada, abuztuaren 13an, Xepa elkartean zozketa egingo da.

Sariei dagokionez, berriz, Pintxo Lehiaketako irabazleak txapela, oroigarria eta 200 euro irabaziko ditu; bigarrenak, oroigarria eta 150 euro eta hirugarrenak, oroigarria eta 120 euro. Piperradako irabazleak, berriz, txapela, oroigarria eta 200 euro jasoko ditu, bigarrenak, oroigarria eta 150 euro

eta hirugarrenak, oroigarria eta 120 euro.

Lehiaketan izena eman ahal izango da Ibarako Kultur Etxean, 943 67 03 99 zenbakira hots eginez, ibarrakult@euskalnet.net posta-helbidearen bidez edo posta arruntaz Euskal Herria kalea 44, 20.400 Ibarra helbidera idatziz. Nahitaezkoa izango da sukaldariaren —eta laguntzaile batego laguntzailearen— izena eta abizena, herria, telefono zenbakia eta, elkarte baten izenean parte hartuz gero, elkartearen izena adieraztea. Azken eguna abuztuaren 12a izango da.

Antolatzaileek herritarrek gonbidatu nahi dituzte Ibarako Piperraren Euskal Herriko I. Lehiaketa Gastronomikoa parte hartzera.

IBARRA ▶

Lapurretak egin dituzte adinekoen etxeetan

I. TERRADILLOS

Ibarako Udaletik jakinarazi dute azken egunetan bikote bat —ituraz haurdun dagoen eta kamiseta arrosadun emakume bat eta gizon gazte bat— adineko emakumeen etxeetara joan direla, baka-rrik dauden unean, eta ura kobratzeari loturiko alegiazko udal zor batzuk erreklamatzeko aitzakian etxeetan sartu eta egoeraz baliatuz lapurtu egiten dutela.

Adineko bi emakumerengandik jasotako salaketak ikusita, Udalak jakinarazi nahi du ez dela inolako udal zerbitzuri loturiko zorrik kobratzen ari, eta horregatik, baimenik gabeko pertsonen ez fidatzeko. Bestalde, horrelako gertakarien berri dutenek aginte polizialei parte ematea gomendatzen da.

IBARRA ▶ GIZARTEA



Lastur-era egun pasa antolatu dute irailean

I. Terradillos ▶ II. Garagardo Azokan egindako lana eskertuz, egun pasa antolatu dute. Irailaren 24ean izango da; 9:30ean aterako dira autobusez Ibaratik, Zarautzen hamaiketako egingo dute eta eguerdian kalejira Getarian trikitilari-

kin. Lasturren bazkaria eta ondoren zezekan izango dituzte. Herritar guztiek har dezakete parte, eta txartelak ahal den azkarren hartzea eskatu dute, Zubiaren, Atarin, Sendi Ekintzan, Dannon Txokoan eta Denak tabernetan. HITZA

LEABURU ▶ KULTURA



Saharar festa ludotekan

I. Terradillos ▶ Leaburuko ludotekako gaztetxoentzat euskal festa antolatu zuten asteartean eta atzo, berriz saharar festa egin zuten. Bertako jantziak soinean zituztela, hango bizimoduaren berri eman zieten. Gaztetxoaren artean bi saharar daude, eta horiek ere azaldu zizkietan hango ohiturak eta tradizioak. HITZA

hilberriak eta urteurrenak ▶

I. urteurrena M. del Carmen Roteta Maiz

(Simon Urkolaren alarguna)



Ahaztu dugun hura
hiltzen delako soilik
maite zaitugulako
oroitzen zaitugu bizirik

Zure seme-alabak eta bilobak

ANOETA, 2005eko uztailaren 23a

Juliana Baztarrika Munduate



Atzo hil zen, Ataunen, 81 urte zituela.
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena
hartu ondoren.
—Golan bego—



Bere ilobak: Mikel Baztarrika eta Maribel, Joxe Mari eta Juanita, Juan Mari eta Rosario, Asensio eta Maria Jesus, Bobi eta Itziar, Lurdes eta Juan Inazio, Xabier eta Denisse, Jexux eta Marjio, Maribel eta Pako, Iñaki (†), Juan Mari (†), Pili, Jone eta Andoni.

Hileta elizkizuna GAUR LARUNBATA, arratsaldeko 18:00etan, San Gregorioko parroki eliztan, gorpua bertan dela egingo da. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Arin-enea etxea

ATAUN, 2005eko uztailaren 23a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guzfitan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HERRI KIROLAK ▶

Asteburu gogorrari «animoso» ekinen dio gaur Areso taldeak

Jon Kanflankak Nafarroako Segalari Txapelketa jokatu du, Leitzan bertan astelehenean egitekoa den saioan



Aldaketa bakarrarekin, hauxe izanen da gaur eta biharko taldea. J. A.



Jon Kanflanka segaria. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Asteburuan herri kirolak izanen dira protagonistak Areson eta Leitzan, alde batetik bertako Areso taldeak Euskal Herriko Lur Gaineko Sokatira Txapelketako 600 eta 640 kiloko finalak jokatu dituelako, gaur-biharretan; eta bestetik, etzi, Nafarroako Segalari Txapelketa Leitzan jokatu delako, bi segarietarik bat, gainera, leitzarra izanez.

Gaur bertan, beraz, Azpeitin, 17:00etan hasita jokatu dute 600 kiloko finala, Areso, Nuarbe, Mutriku, Gaztedi A eta B eta Goiherri A sokatira taldeek. Eta bihar Getxoko Haize-Errotan, 11:00etatik aurrera, 640 kiloko, talde berak ariz.

Areso taldean 11 lagun eta prestatzailea joanen dira, «gaudenak», zehaztu zuten atzo. «Taldea tikitik aldaketa bakarra eginen dugu biharko, Mikel atera eta Patxi sartuz», zioten; eta etzirako, berriz, «ziur aski, handienak» sartuko omen dituzte, «bezperan jasotzen duten nekearen arabera», zioten umorez.

Izan ere, beren hitzetan «berriketa gutxi» izanen omen da 2 final hauetan. Halaxe iragarri zuten aresoarrek: «Azken urte-etako finalik gogorrenetakoak izanen direla iduritzen zaigu. Talde guztiak itxaropentsu goaz, ez baitago bat besteetatik nabarmentzen denik, eta lanak izanen dira!». Beren ustez, tiraldien ordenak zeresan handia izanen omen du, «pasada dezentekoa hartutako taldearekin ari beharra egokitzeak lagun» lezake eta. Aukerak badituztela eta «animoso, bagauden», zioten.

Bestalde, etzi, hilak 25 eta 12:30etik aurrera, Nafarroako Segalari Txapelketa jokatu da, Leitzako Plazaolako estazioaren gainaldean, Garagarzako belatsoan.

Estazioan sega txapelketa

Lehendabiziko aldiz jokatu da Nafarroan, «orain arte ez baitzegoen segan aritzen zen inor», halaxe adierazi zuten Herri-kirol Federazioetik bere garaian, eta «orain baditugu bi», zioten. Hauexek dira bi segala-

riak: batetik, Dabid Mariñelarena, Lantzekoa, eta 29 urte ditu. Duela 7-8 urtez geroztik segan aritzen delarik, kirol honetan eskarmentuduna; bestea, Jon Kanflanka leitzarra, 25 urtekoa, eta lehengo azaroan hasia segan ikasten. Biek hala biek ere, 45 minutu izanen dituzte segarako. Belarra biltzeko ere beste hainbeste denbora izanen dute, segan hasi eta 10 minutura ekinez, eta sareetan jarri ondoren pisatzez bukatzeko beste 5 minutu gehiago. Segariak lanak bukatuta, ordu laurdenerako txapelak jabea izanen du.

Lan horiek egiteko segalariak talde oso bat eramaten dute. Honetakoan, Kanflank honako hauek ditu: belar-biltzaileak (3 eskuaredu, 1 sareak betetzen eta 2 baskulekin), Pello eta Joxe Migel Poldar bere anaiak, Jose Luis Arrizurieta Arri, Jabier Olano Garagartza, Oskar Ariztimuño Txato eta Beñat Astibia; zorroztaile, Jose Jabier Ariztimuño, bere lehengusua eta aholkulari, Jose Ramon Aia, segan erakusten ari zaiotz bera.

LEITZA ▶ GIZARTEA



22 gaztetxo elkarbizitza lantzeko asmoz Azpirozen

J. Astibia ▶ Atzo itzuli ziren etxera Leitzako 22 gaztetxo Azpiroztik, bertan 4 egun eginda. DBHko 1. go eta 2. mailan aritu dira ikasturtean zehar eta oporraldian elkarbizitza lantzeko asmoz izan omen dira han, bereaiekin bi laguntzaile zituztela, baina arduradunak Leitzako bi apaizak izanez. Egun hauetan zehar hitzaldiez gain, ateraldiak ere egin omen dituzte han inguruko parajeetara. Aitatzekoa da, gurasoak joan direla egunero, egunean zeharrerako otartekoak eta afariak prestatzera. HITZA

LEITZA ▶ PILOTA

Buruz-burukoa ere eginen dute gaur hasita

Sake librean, 8 pilotari ariko dira plazan 17:30etik aurrera; irabazleak finalerdietara

J. ASTIBIA

Gaur arratsaldean, 17:30etik aurrera Plazako Buruz-buruko Txapelketa hasiko da. Bertan 8 pilotarik parte hartuko dute eta sake librean ariko dira, 22ra noski.

Aspaldiko «mahi bat» omen zen plazan buruz-buruko txapelketa egitearena, eta aurten, bertan parte hartuko luketen pilotariak izanik, aurrera jarraitzea erabaki dute. «Bestea», alegia Plazako Eskuz Biñakakoa antolatzen duten ber-berek, halaxe azaldu zioten Hitzari. Nabarmendu zuten, «I. Mano-manoa» izanen den honetan, halaxe izendatu

dute eta, sake librean ariko dira pilotariak eta, ezker paretik ez denez, «zabaleko bi arrastoak» izanen omen dira muga.

Zortzi parte-hartzailekin, beraz, lau partidu izanen dira gaur. Irabazleak finalerdietara igaroko dira zuzenean. Honatx: Unai Olano/Joseba Mariñelarena; Antonio Mariñelarena/Martin Telletxea (bi hauek irabazleak aurkari hurrengoan); beste hainbeste, Harkaitz Bengoetxea/Antton Abruzza; Igor Aldaia/Iñaki Mariñelarena, partiduekin.

iragarki laburrak ▶

Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak, hezitzaileak. Lanpostu libreak: jantokiak, haur eskolak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonoz.
Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Lanaldia:

astelehenean ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan, 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.
Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritzak. Astean 35 ordu. Informazioa doan, 943 65 01 93.
Suhiltzaileak. Hurrengo deialdiak:

Gipuzkoa. 1.400 euro/hilean. Astean bi lanegun. Azken lanpostuak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Peoiak, ofizioko langileak. Lanpostu finkoak: igeltseroak, argiketariak, iturginak... eraikin publikoetan mantentze-lanetan aritzeko. Lanaldia: astelehenean ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Informazioa doan, 943 65 01 93 telefono zenbakiri deituz.
Administrari laguntzaileak. Plaza libreak daude udalberako. 1.200 euroko soldata hilabetean. Lanaldia: astelehenean ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan lortzeko aukera, 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

